

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA, LAN
ETA ENPLEGU SAILALan eta Gizarte Segurantzako
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariera, Gipuzkoako naturguneetako Salbamendu eta Sorospeneko I. Lan Hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (2010477 5012024 kodea).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2024ko uztailaren 2an, Asociación Española de Empresarios de Servicios Deportivos a las Administraciones Públicas (AEESDAP) elkarteak enpresaburuen ordezkapenean, eta ELA, LAB eta CCOO sindikatuek langileen ordezkapenean, sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

Bigarrena. 2024ko uztailaren 22an, aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritza honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2024ko uztailaren 24a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaria. (6183)

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEODelegación Territorial de Trabajo y
Seguridad Social de Gipuzkoa

RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del I Convenio Colectivo de Salvamento y Socorrismo en espacios naturales de Gipuzkoa (código 20104775012024).

ANTECEDENTES

Primero. El día 2 de julio de 2024, se suscribió el convenio citado por la Asociación Española de Empresarios de Servicios Deportivos a las Administraciones Públicas (AEESDAP) en representación de las empresas, y por los sindicatos ELA, LAB y CC.OO. en representación de las personas trabajadoras.

Segundo. El día 22 de julio de 2024, se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Segundo. El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 24 de julio de 2024.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (6183)

Gipuzkoako naturguneetako salbamendu eta sorospeneko I. hitzarmen kolektiboa.

HITZAURREA

Hitzarmen kolektibo hau sinatu dute, batetik, «Asociación Española de Empresarios de Servicios Deportivos a las Administraciones Públicas (AEESDAP)» enpresa-elkarteak, sektoreko enpresen ordezkari gisa, eta, bestetik, ELA, LAB eta CCOO erakunde sindikalek, hitzarmenaren eraginpeko lan-kolektiboaren ordezkari gisa.

Hitzarmen hau Gipuzkoako administrazio publikoentzako ingurune naturaletako salbamendu- eta sorospen-zerbitzuen sektorearen ezaugarri berezietara berariaz egokitutako lan-esparru arautzaile bat ezartzeko beharretik sortu da. Mota honetako kontratu publikoen berezitasun erregulatzaileak, negozio-eredu honi goragoko eremuko hitzarmen sektorialak ez egokitzeak eta Gipuzkoako probintziari datzekion lurralde-ezaugarriek, titulartasun publikoko instalazioetako salbamendu- eta sorospen-jarduera berariaz arautzen duen hitzarmen probintzialarekin batera egotea barne, beharrezkoa egiten dute laneko arau-esparru espezifiko bat ezartzea, segurtasun, ziurtasun, egokitasun eta kalitate handiagoa emango diona sektore honetako enpresa/erakundeen eta langileen arteko lan-harremanei.

1. artikulua. Indarraldia eta iraupena.

Hitzarmen hau 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN erregistratzen eta argitaratzen den eguna edozein dela ere, eta 2028ko abenduaren 31n amaituko da indarraldia, egun horretan automatikoki iragarriko baita amaiera.

Edukia sektore publikoko zerbitzu-kontratuei (SPKLren 17. eta 312. artikulua) edo esparru-akordioei soilik aplikatuko zaie, baldin eta horien lizitazio-iragarkia hitzarmena ofizialki argitaratu ondoren argitaratu bada. Iragarkia egin ezean, hitzarmena argitaratu ondoren pleguak onartu zaizkien kontratuei. Honako hauei ezin izango zaie inoiz aplikatu:

- 1) Indarrean edo luzapen-aldian dauden kontratuak, esparru-akordioak, hitzarmenak, itunak edo akordioak (itunduta, isilbidez edo nahitaez) edo
- 2) Erakunde publikoei zerbitzuak emateko beste edozein egoera (zerbitzuak kontraturik gabe ematea, zerbitzuaren jarraitutasuna -inposatua, adostua edo isilpekoa-, kontratazio balio-gabeak, bidegabeko aberastea, kontraturik gabeko zerbitzuen kudeaketa, zerbitzuaren hondar-prestazioak edo antzeko beste edozein egoera), baldin eta zerbitzua ematen hastea edo zerbitzuak ematearen ondoriozko kontratazio-espeditzea hastea hitzarmen hau indarrean jarri baino lehenagokoa bada.

Aurreko paragrafoetan jasotakoez bestelako kasuetan dauden langileei ordura arte aplikatu zaien hitzarmen kolektiboan ezarritakoa aplikatuko zaie.

Hala ere, aurretik ezarritakoaz gain, 2028ko abenduaren 1ean hitzarmen honen funtzio- eta lurralde-eremuan bildutako langile guztiei aplikatuko zaie hitzarmen hau.

Indarraldia amaitzean, aurreraeraginari eutsiko dio hitzarmen kolektibo honek, denbora-mugarik gabe, beste hitzarmen batek ordezkatu arte.

Hitzarmen kolektibo honen aurreraeragina amaitu arte luzatuko da hemen jasotako xedapen guztien aplikazioa, hitzarmenezko edo arauzko xedapenak ere barnean direla.

I convenio colectivo de salvamento y socorrismo en espacios naturales de Gipuzkoa.

PREÁMBULO

El presente Convenio Colectivo está suscrito, de una parte, por la Asociación Empresarial «Asociación Española de Empresarios de Servicios Deportivos a las Administraciones Públicas (AEESDAP)» en representación de las empresas del sector, y de otra parte por las Organizaciones Sindicales ELA, LAB, y CC.OO., en representación del colectivo laboral afectado por el mismo.

Este convenio nace de la necesidad de establecer un marco regulatorio laboral específicamente adaptado a las especiales características del sector de los servicios de salvamento y socorrismo en entornos naturales a las Administraciones Públicas en la provincia de Gipuzkoa. Las particularidades regulatorias de este tipo de contratos públicos, la falta de adecuación de los convenios sectoriales de ámbito superior a este modelo de negocio y las propias características territoriales inherentes a la provincia de Gipuzkoa, incluida la coexistencia con un convenio provincial que regula específicamente la actividad de salvamento y socorrismo en instalaciones de titularidad pública, hacen necesario el establecimiento de un marco normativo laboral específico que dote de una mayor seguridad, certeza, idoneidad y calidad a las relaciones laborales entre empresas/entidades y las personas trabajadoras de este sector.

Artículo 1. Vigencia y duración.

El presente Convenio entrará en vigor el 1 de enero de 2024, independientemente de la fecha de su registro y publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará su vigencia el 31 de diciembre de 2028, fecha en que se entiende denunciado automáticamente.

Su contenido será de aplicación, única y exclusivamente, a las personas trabajadoras adscritas a los contratos de servicios del sector público (artículos 17 y 312 de la LCSP) o acuerdos marco cuyo anuncio de licitación haya sido publicado con posterioridad a la publicación oficial del convenio. A falta de anuncio, a aquellos contratos cuyos pliegos hayan sido aprobados con posterioridad a la publicación del convenio. No podrá ser aplicado nunca a:

- 1) Contratos, acuerdos marco, convenios, conciertos o acuerdos que se encuentren vigentes o en periodo de prórroga (pactada, tácita o forzosa) o
- 2) Cualquier otra situación de prestación de servicios a entidades públicas (prestación de servicios sin contrato, continuidad de servicio -impuesta, acordada o tácita-, contrataciones nulas, enriquecimiento injusto, gestión de servicios sin contrato, prestaciones residuales de servicio o cualesquiera otras situaciones análogas) en que el inicio de la prestación del servicio o el inicio del expediente de contratación del que deriva la situación de prestación de servicios fuese anterior a la entrada en vigor del presente convenio.

Para aquellas personas trabajadoras que se encuentren en supuestos distintos a los recogidos en los párrafos anteriores, les será de aplicación lo establecido en el convenio colectivo que se les haya venido aplicando.

No obstante, independiente de lo establecido anteriormente, este convenio será de aplicación a todas las personas trabajadoras contempladas en el ámbito funcional y territorial de este convenio con fecha 1 de diciembre de 2028.

El convenio colectivo, finalizada su vigencia, mantendrá su ultraactividad sin límite temporal, hasta que sea sustituido por la renovación del mismo.

Durante el periodo de ultraactividad del presente Convenio Colectivo se prorrogará la aplicación de la totalidad de las disposiciones que se recogen en el presente, incluidas las disposiciones que tengan naturaleza o carácter convencional o normativo.

2. artikulua. Lurralde- eta langile-eremua.

Hitzarmen kolektibo honek Gipuzkoako Lurralde Historikoan enpresek eta erakunde pribatuek kudeatzen dituzten administrazioei kontratu publikoekin lotutako naturaguneetako salbamendu- eta sorospen-zerbitzuen eraginpeko langile guztiei baino ez die eragiten. Eremu horretatik kanpo geratzen dira, berariaz, eremu pribatuan zerbitzu horiek ematen dituzten langileak eta kirol-instalazio edo establezimendu gaitu batean garatzen diren enpresa eta erakunde pribatuek kudeatutako kontratu publikoen eremuan zerbitzu horiek ematen dituztenak.

Hitzarmen honen dokumentu osoan, esleipentzat hartuko da, oro har, 1. artikuluan definitutako kontratazio-modalitate oro, titular esleipendunen eta erakunde publikoen artean (tokikoa, forala, autonomikoa eta estatukoa) edo, hala badagokio, zerbitzuak ematen dituzten erakunde kudeatzaileen artean gertatzen dena.

Hitzarmen honen dokumentu osoan, berdin dio zein erakunde edo enpresa den, izaera juridikoa edozein dela ere.

3. artikulua. Lanaldia eta egutegia.

Urteko gehieneko lanaldia 1.695 ordukoa izango da.

Eguneko lanaldia bi eratakoa izan daiteke: lanaldi jarraitua edo lanaldi zatitua. Eguneko lanaldia lanaldi zatituan egiten bada, eguneko lanaldi hori 2 zatitan banatu ahalko da. Eguneko lanaldia ezingo da 3 zati edo gehiagotan banatu.

Bazkaltzeko 30 minutuko atsedendaldi ordaindua (benetako lan-denboratzat hartuko da) ezartzen da 12:00etatik 16:00etara zerbitzua etengabe ematen duten langileentzat, eta 15 minutuko atsedendaldi ordaindua (benetako lan-denboratzat hartuko da) 7 orduko edo gehiagoko eguneko lanaldia duten langileentzat.

Sektore honen ezaugarri bereziak direla eta, eta lanpostu hutsak, absentziak eta zerbitzuak ematean izandako gorabeherak betetzea errazteko helburu bakarrarekin, itundutako urteko lanaldia modu irregularrean banatu ahal izango da urteko egun guztietan, dagozkion asteko eta urteko atsedeen-egunak hartzeari kalterik egin gabe, lan-kontratuak lanaldi partzialekoak edo lanaldi osokoak izan. Hala ere, enpresak/erakundeak ezingo du modu irregularrean banatu asteen 25 orduetik beherako lanaldia duten lanaldi partzialeko langileen lanaldiaren % 10 baino gehiago.

Lanaldia denboraldiko koadrantearen bidez zehaztuko da. Koadrante hori jarduerak hasi baino gutxienez 15 egun lehenago egin eta jakinaraziko zaie langileei, salbu eta enpresak dagokion administrazio publikoak beharrezko informazioa ematen ez duenean. Bertan, langile bakoitzaren txandak, ordutegiak eta atsedenenak jasoko dira.

Jardueretako langileen egutegiak ezartzerakoan, ordutegia zehazteko lehen irizpidea langile bakoitzak eman beharreko jarduera bakoitzerako duen esperientzia praktikoa izango da. Prestakuntza bera izanez gero, antzintasuna izango da ordutegia zehazteko irizpidea. Beraz, antzintasun handiena dutenek izango dute, hala nahi izanez gero, lanaldi jarraitua izateko lehentasuna, betiere hautagai bakoitzak eskatutako lanbide-profila betetzen badu.

Lantoki batetik bestera joateko denbora benetako lan-denboratzat hartuko da.

4. artikulua. Ordaindutako lizentziak.

Lanetik joateko baimena har dezake langileak, lansaria jasozko eskubidea duela, aldeztu aurretik jakinarazten badu eta justifikatzen badu, arrazoi hauetako bat eta denbora jakin honetarako:

Artículo 2. Ámbito territorial y personal.

El presente convenio colectivo afecta a exclusivamente a todo el personal afecto a servicios de salvamento y socorrismo en espacios naturales vinculados a contratos públicos a las administraciones gestionados por empresas y entidades privadas en el territorio Histórico de Gipuzkoa. Se excluye expresamente de este ámbito a las personas trabajadoras que presten dichos servicios en el ámbito privado y aquellas que lo hagan en el ámbito de los contratos públicos gestionados por empresas y entidades privadas que se desarrollen en algún tipo de instalación deportiva o establecimientos habilitados.

En todo el documento de este presente convenio, se entenderá por adjudicación con carácter general cualquier modalidad de contratación de las definidas en el art. 1 que se produzcan entre las titulares adjudicatarias y distintas instituciones públicas (local, foral, autonómico y estatal) o en su caso con las entidades gestoras que prestan los servicios.

En todo el documento de este convenio, se entenderá de modo indistinto entidad o empresa con independencia de su naturaleza jurídica.

Artículo 3. Jornada laboral y calendario.

La jornada máxima anual será de 1.695 h anuales.

La jornada laboral diaria tendrá carácter de jornada continua o jornada partida. En el caso de que la jornada laboral diaria se realice en régimen de jornada partida, dicha jornada diaria se podrá dividir en 2 partes. No se podrá dividir la jornada laboral diaria en 3 o más partes.

Se establece un descanso retribuido (considerado como tiempo efectivo de trabajo) de 30 min para comer para aquellas personas trabajadores que presten servicio de manera ininterrumpida entre las 12:00 y las 16:00 h, así como un descanso retribuido adicional (considerado como tiempo efectivo de trabajo) de 15 minutos para aquellas personas trabajadoras con una jornada diaria igual o superior a 7 h.

Dadas las especiales características de este sector y con el único objetivo de facilitar la cobertura de vacantes, ausencias e incidencias en la prestación de los servicios, la jornada anual pactada podrá distribuirse irregularmente durante todos los días del año, sin perjuicio del disfrute de los días de descanso semanal y anual que correspondan, con independencia de que los contratos de trabajo lo sean a tiempo parcial o a tiempo completo. No obstante, la empresa/entidad no podrá distribuir irregularmente más del 10 % de la jornada de aquellas personas contratadas a tiempo parcial con una jornada inferior a 25 horas semanales.

La jornada se concretará mediante cuadrante de temporada que se confeccionará y pondrá en conocimiento de las personas trabajadoras con una antelación mínima de 15 días antes del comienzo de las actividades excepto cuando la empresa no disponga de la información necesaria por parte de la administración pública correspondiente. En el mismo se recogerán los turnos, horarios y descansos de cada persona trabajadora.

A la hora de establecer los calendarios del personal de actividades, el primer criterio de concreción horaria será el de experiencia práctica que posea cada persona trabajadora para cada actividad a impartir. En caso de poseer la misma formación el criterio para la concreción horaria será el de antigüedad, de tal manera que las de mayor antigüedad tendrán preferencia, si así desea optar, por tener jornada continua, todo ello siempre que cada uno de los candidatos cumpla con el perfil profesional exigido.

El tiempo de desplazamiento de un centro a otro, se considerará tiempo de trabajo efectivo.

Artículo 4. Licencias retribuidas.

La persona trabajadora, previo aviso y justificación, podrá ausentarse del trabajo con derecho a remuneración por alguno de los motivos y por el siguiente tiempo:

– Hiru egun natural, ezkontidea, edo izatezko bikotekidea eta seme-alabak edo odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senidea hiltzen bada. Arrazoi Hori dela eta langileak bere bizilekutik 150 km baino gehiagoko bidaia egin behar badu, epea bi egunez luzatuko da.

– Bost lanegun ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko ahaideen (izatezko bikotearen odol-ahaidetasuneko ahaidea barne) istripu edo gaixotasun larriagatik, ospitalerazteagatik edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ospitalerazterik gabeko ebakuntza kirurgikoagatik, bai eta aurrekoak ez diren beste pertsona batzuen kasuan ere, betiere langilearekin etxebizitza berean bizi badira eta horiek benetan zaindu behar badira.

– Ezkontzen bada, edota izatezko bikote egiten bada, 15 egun natural.

– Egun bat ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik, eta bi egun langileak 75 km baino gehiago egin behar baditu.

– Nahitaezko betebeharrak publiko eta pertsonal bat betetzeko behar den denbora. Aldez aurretik, arrazoiak eta inguruabarrak modu frogagarrian egiaztatuta beharko dira.

– Eginkizun sindikalak edo langileen ordezkariak egiteko, horretarako legez ezarritako baldintzetan.

– Langileak titulu akademiko edo lanbide-gaikuntzako titulu bat lortzeko ikasketak egiten ari bada, azterketak egiteko behar duen denbora, aldez aurretik enpresari jakinarazita eta justifikatuta.

– Haurdun dauden langileei behar diren baimenak emango zaizkie jaio aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko teknikak egiteko, aldez aurretik enpresaburuari jakinarazita eta lanaldiaren barruan egin behar direla justifikatuta.

– Langileek lanalditik ordu bete hartu ahal izango dute bederati hilabete baino gutxiagoko semeari edo alabari bularra emateko, eta ordu erdiko bi zatitan banatu ahal izango dute ordu bete hori. Langileak, nahi bada, eskubide hori ohiko lanaldiaren ordu erdiko murrizketaz ordeztzeko aukera izango du, helburu berberarekin, edo, bestela, hamabost lanegun metatu. Aitak edo amak baliatu ahal izango du baimena, biek lan egiten badute.

– Seme-alaba goiztiarrak jaiotzen direnean, amak edo aitak lanetik ordu bete joateko eskubidea izango du. Eskubide bera izango dute, baldin eta, edozein arrazoi dela-eta, erditzearen ondoren haurrek ospitalean jarraitu behar badute. Lanaldia murrizteko eskubidea ere izango dute, gehienez ere bi orduz, soldata proportzio berean gutxituta.

– Langileek, aldez aurretik jakinarazita eta ondoren justifikatuta, urtean gehienez hamasei orduko baimen ordainduak izateko eskubidea izango dute, nonberen bisita medikoetara joateko edo elkarrekin bizi diren eta/edo laguntza behar duten goragokoak edo ondorengoak laguntzeko, betiere asistentzia Osasun Zerbitzu Publikoaren edo Osasun Pribatuaren osasun-zerbitzuen bidez ematen bada. Baimen hori gutxienez hogeita lau ordu lehenago jakinarazi beharko da, eta ondoren justifikatu beharko da.

– Langileak eskubidea izango du lanpostua uzteko, ezinbesteko kasuetan, baldin eta senide edo bizikideekin lotutako pre-miazko arrazoien ondorioz gaixotasuna edo istripua dela eta beharrezkoa bada berehala bertaratzea.

Langileek eskubidea izango dute artikuluko honetan azaltzen diren arrazoiengatik dituzten absentzia-orduak ordaintzeko; urtean lau egunen balioak izango dira, hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera, edo, halakorik ez dagoen, enpresaren eta langileen

– 3 días naturales en caso de fallecimiento del/la cónyuge o pareja de hecho e hijos/as o parientes hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad. Cuando con tal motivo la persona trabajadora necesite hacer un desplazamiento superior a 150 km de su residencia, el plazo se ampliará en dos días.

– Cinco días por accidente o enfermedad graves, hospitalización o intervención quirúrgica sin hospitalización que precise reposo domiciliario del cónyuge, pareja de hecho o parientes hasta el segundo grado por consanguinidad o afinidad, incluido el familiar consanguíneo de la pareja de hecho, así como de cualquier otra persona distinta de las anteriores, que conviva con la persona trabajadora en el mismo domicilio y que requiera el cuidado efectivo de aquella.

– 15 días naturales matrimonio/registro pareja de hecho.

– Un día por traslado de domicilio habitual y dos días en el caso de que la persona trabajadora tuviera que desplazarse más de 75 km.

– Por el tiempo indispensable para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público y personal, debiendo acreditar previamente de manera fehaciente, los motivos y circunstancias de estos.

– Para realizar las funciones sindicales o representación de las personas trabajadoras en los términos legalmente establecidos al efecto.

– Por el tiempo indispensable para la realización de exámenes, previo aviso y justificación de los mismos a la empresa, cuando la persona trabajadora curse estudios para la obtención de un título académico o de capacitación profesional.

– Se concederán los permisos necesarios a las trabajadoras embarazadas para la realización de exámenes prenatales y técnicas de preparación al parto, previo aviso al empresario y justificación de la necesidad de su realización dentro de la jornada de trabajo.

– Las personas trabajadoras por lactancia de un hijo menor de nueve meses tendrán derecho a una hora de ausencia del trabajo, que podrán dividir en dos fracciones de media hora. La persona trabajadora por su voluntad podrá sustituir este derecho por una reducción de la jornada normal en media hora con la misma finalidad u optar por la acumulación de quince días laborales. Este permiso podrá ser disfrutado indistintamente por la madre o por el padre en caso de que ambos trabajen.

– En los casos de nacimientos de hijo o hija prematuros o que, por cualquier causa, deban permanecer hospitalizados a continuación del parto, la madre o el padre tendrán derecho a ausentarse del trabajo durante una hora. Asimismo, tendrán derecho a reducir su jornada de trabajo hasta un máximo de dos horas, con la disminución proporcional del salario.

– Las personas trabajadoras, previo aviso y posterior justificación, tendrán derecho a permisos retribuidos de como máximo dieciséis horas anuales de duración, para acudir a visitas médicas propias o para acompañar ascendentes o descendientes que convivan y/o precisen de acompañamiento, siempre y cuando la asistencia se preste a través de los servicios sanitarios del Servicio Público de la Salud o Sanidad Privada. El disfrute de este permiso deberá preavisarse con un mínimo de veinticuatro horas y será necesaria una justificación posterior.

– La persona trabajadora tendrá derecho a ausentarse del trabajo por causa de fuerza mayor cuando sea necesario por motivos familiares urgentes relacionados con familiares o personas convivientes, en caso de enfermedad o accidente que hagan indispensable su presencia inmediata.

Las personas trabajadoras tendrán derecho a que sean retribuidas las horas de ausencia por las causas previstas en el presente apartado equivalentes a cuatro días al año, conforme a lo establecido en convenio colectivo o, en su defecto, en acuerdo

legezko ordezkartzaren arteko akordioaren arabera. Eskatuz gero, absentiaren arrazoiaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute langileek.

Ezkondutza ez diren eta bizikidetzaz-ziurtagiri ofizial baten bidez elkarrekin bizi direla egiaztatzen duten bikoteen kasuetan, ezkontza-loturaren kasuan kontuan hartutako eskubide berberak sortuko dira.

5. artikulua. Ordaindu gabeko lizentziak.

Langileek urtean hiru asteko ordaindu gabeko lizentzia hartzeko eskubidea izango dute, betiere zerbitzuaren antolamenduak horretarako aukera ematen badu. Lizentzia hori 20 egun lehenago eskatu beharko da, salbu eta eskaeraren arrazoia ezkontidearen eta seme-alaben gaixotasun larriagatik bada; kasu horretan, hiru egun lehenago jakinaraziko da. Enpresak ezezkoa ematen badu, idatziz justifikatu beharko du, zazpi egun balioduneko epean, eta proposamen alternatibo bat egin beharko du.

6. artikulua. Medikuz-azterketa.

Urteko nahitaezko azterketa mediko bat ezartzen da enpresaren kontura. Azterketa horrek, gutxienez, odol- eta gernu-analisiak, audiometria, ikusmen-kontrola eta, medikuak aginduta, kardiograma eta birika-miaketa izango ditu.

Era berean, beti medikuaren aginduz eta azterketa urologikoak eta ginekologikoak dagokion mutua edo Gizarte Segurantzak estaltzen dituenean eta enpresaren kargura ez direnean, berrikuspen horretan sartuko dira.

7. artikulua. Erretiroa.

Erretiro-adina dagokion araudiak ezartzen duenaren arabera ezartzen da.

8. artikulua. Erretiro-saria.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean erretiroa hartzeko borondatez uzten duten langileek, erretiroa aurreratua bada ere, sari bat jasotzeko eskubidea izango dute enpresatik, betiere gutxienez 10 urteko antzintasuna badute.

Sari horren zenbatekoa antzintasunaren eta erretiroa hartzeko adinaren arabera izango da, eta hitzarmeneko soldata-egunetan adieraziko da, aparteko ordainsarien hainbanaketarik gabe.

Taula honen arabera:

Antzintasuna/Erretirorako adina	60 urte	61 urte	62 urte	63 urte	64 urte	65 urte
15 urte	120	100	80	60	40	20
14 urte	100	83	67	50	33	17
13 urte	80	67	53	40	27	13
12 urte	60	50	40	30	20	10
11 urte	40	33	27	20	13	7
10 urte	20	17	13	10	7	5

Antzintasuna/Edad jubilación	60 años	61 años	62 años	63 años	64 años	65 años
15 años	120	100	80	60	40	20
14 años	100	83	67	50	33	17
13 años	80	67	53	40	27	13
12 años	60	50	40	30	20	10
11 años	40	33	27	20	13	7
10 años	20	17	13	10	7	5

entre la empresa y la representación legal de las personas trabajadoras aportando las personas trabajadoras, en su caso, acreditación del motivo de ausencia.

En los casos de convivencia marital de parejas que no hayan contraído matrimonio y que la acrediten mediante un certificado oficial de convivencia, se generarán los mismos derechos que los contemplados en caso de existencia de vínculo matrimonial.

Artículo 5. Licencias no retribuidas.

Las trabajadoras y trabajadores tendrán derecho al disfrute de una licencia no retribuida de tres semanas al año, siempre que la organización del servicio lo permita, que deberá ser solicitada con 20 días de antelación, excepto cuando la causa de la solicitud sea por enfermedad grave del/la cónyuge e hijos/as que se avisará con tres días de antelación. En caso de denegación por parte de la empresa, ésta deberá justificarla por escrito en el plazo de 7 días hábiles planteando una propuesta alternativa.

Artículo 6. Revisión médica.

Se establece una revisión médica anual obligatoria a cargo de la empresa, que como mínimo constará de análisis de sangre y orina, audiometría, control visual, y por prescripción facultativa cardiograma y exploración de pulmón.

Del mismo modo, siempre bajo prescripción facultativa y cuando las revisiones urológicas y ginecológicas estén cubiertas por la correspondiente Mutua o Seguridad Social y no sean a cargo de la empresa, se incluirán en esta revisión.

Artículo 7. Jubilación.

Se establece la edad de jubilación según establezca la normativa correspondiente.

Artículo 8. Premio de jubilación.

El personal que durante la vigencia del presente convenio cese voluntariamente para acceder a la jubilación, incluso si esta es anticipada, tendrá derecho a percibir de la empresa un premio, siempre que su antigüedad sea de por lo menos 10 años.

La cuantía de dicho premio estará en función de dicha antigüedad y de la edad con la que se jubile, y vendrá expresada en días salario convenio, no incluyendo prorrateo de pagas extraordinarias.

Según la tabla siguiente:

9. artikulua. Oporrak.

Urtean 30 opor-egun natural ezartzen dira, langilearen lanaldiaren arabera. Ahal dela, hondartzetako zerbitzu-denboralditik kanpo hartu beharko dira, eta gehienez ere ondoz ondo gutxienez bi eguneko hiru bloketan hartu beharko dira, enpresaren eta langilearen arteko akordioak ezean.

Oporrak hartzen dituen bitartean langilea ospitaleratu behar balute oporrak hartzeko funtsezko eragozpena ekarriko liokeen gaixotasun baten ondorioz, hori guztia dagokion mediku-egiaztagiraren bidez egiaztatuta, eten egingo litzateke oporren zenbaketa, eta ondorio horietarako ez dira kontuan hartuko ospitalean egondako egunak. Ospitaleko alta jaso ondoren, langileak oporraldia hartzeko eskubidea izango du, eta, hala badagokio, baita oporrei zor zaizkien eta haiei metatutako egun libreak ere, ahalik eta lasterren, enpresari kalterik egin gabe.

Ospitaleratzea lanekoa ez den istripuagatik gertatu bada, Hitzarmen honen Batzorde Mistoak erabakiko du ea egokia den oporren zenbaketa etetea edo ez, istripua gertatu den edo gertatu den inguruabarrak, modua edo era kontuan hartuta, eta jarduerak eta arrisku-irizpideak kontuan hartuta.

Opor-txandak kontuan hartuko dira urteko lanaldia planifikatzeko orduan, eta, beraz, behar bezalako aurrerapenez ezarri beharko dira, honako printzipio hauek errespetatuz:

a) Hitzarmen honetan araututako jardueraren ezaugarri bereziak kontuan hartuta (jarduera-aldiak ez dira 4 hilabetetik gorakoak izaten), enpresak eta eraginpeko langile bakoitzak gutxienez 15 egun lehenago jakin beharko dute oporrak hartzen hasteko datari buruzko akordioa.

b) Sail bereko langile guztiak ados jarri beharko dira, eta, funtsean, zeregin komun bat egiten dutenak.

c) Oporrak hartzeko datak bi langileren artean aldi berean eskatzen badira eta enpresak ezin baditu eman antolaketa- edo zerbitzu-arrazoiengatik, antzinasun-irizpideari jarraituko zaio.

Oporraldiak gaixotasun profesionalak edo lan-istripuak eragindako aldi baterako ezintasun-egoeran dauden langileei eragiten badie, oporrak ez dira zenbatuko aldi baterako ezintasun-egoera amaitzen ez den bitartean.

10. artikulua. Enplegua hobetzea.

Sektorean dagoen lan-prekarietateari aurre egiteko, enpresek konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Dauden lanpostu hutsak kontratazio berrien bidez (egiturazko lanpostuak) bete aurretik, enpresak lanpostu huts horiek eskaini beharko dizkie lanaldi partzialeko langile finkoei (langile mugagabeei edo aldizkako langile finkoei), langileak lanaldi osoa lor dezan, betiere kategorian antzinasunaren irizpideari jarraituz eta eskatutako lanbide-profila betetz.

2. Premiak daudenean, aldi baterako ezintasunak, baimeak, lizentziak, eszedentziak eta abar aldi baterako estaliko dira, eta lanaldi partzialeko langile mugagabeei edo aldizkako langile finkoei ordu osagarriak egiteko eskaintza egingo zaie, kategorian antzinasun-irizpideari jarraituz eta eskatutako profila betetzen badute.

Aldizkako kontratu mugagabea edo finkoa duen langile bati lanaldia murrizten bazaio, eta antzinasunagatik lanpostu hutsa esleitu aurretik, lehentasuna izango du bere lanaldia handitzeko, murrizketaren aurretik zuen lanaldia lortu arte.

Artículo 9. Vacaciones.

Se establecen 30 días naturales al año de vacaciones, proporcionales a la jornada de la persona trabajadora, a disfrutar preferentemente fuera de la temporada de servicio de playas que deberán ser disfrutados en un máximo de tres bloques de al menos 2 días consecutivos, salvo acuerdo entre empresa y la persona trabajadora.

En el caso de que durante el disfrute de vacaciones la persona trabajadora tuviera que ser hospitalizada como consecuencia de una enfermedad que le supusiera quebranto sustancial para el disfrute de las vacaciones, todo ello acreditado mediante el oportuno justificante médico, quedaría suspendido el cómputo de vacaciones sin que, por tanto, se tengan en cuenta a estos efectos los días que hubiera estado hospitalizada. Una vez recibido el alta hospitalaria, la persona trabajadora tendrá derecho a disfrutar del período pendiente de vacaciones, y en su caso, de los días libres adeudados y acumulados a las mismas, lo antes posible sin perjuicio para la empresa.

Si la hospitalización se debiera a accidente no laboral, la Comisión Mixta de este Convenio resolverá sobre la procedencia de la suspensión o no del cómputo de las vacaciones atendiendo a las circunstancias, modo o forma en las que haya tenido lugar o se haya producido el accidente y atendiendo a criterios de actividad y riesgo.

Los turnos de vacaciones se tendrán en cuenta a la hora de planificar la jornada anual, por lo que deberán ser establecidos con adecuada antelación y respetándose los siguientes principios:

a) Teniendo en cuenta las especiales características de la actividad regulada por este convenio, donde los periodos de actividad no suelen superar los 4 meses, se establece que la empresa y cada persona trabajadora afectada deberán conocer con un mínimo de 15 días de antelación el acuerdo sobre la fecha del inicio de disfrute de las vacaciones.

b) Deberá existir un acuerdo entre todas las personas trabajadoras de un mismo departamento e imprescindiblemente de los que realicen una tarea común.

c) En caso de coincidencia de solicitud de fechas de disfrute de vacaciones entre dos personas trabajadoras y ante la imposibilidad de concederlas por razones organizativas o de servicios por parte de la empresa, se atenderá al criterio de antigüedad.

Si el periodo vacacional afectara a personas trabajadoras en situación de Incapacidad Temporal derivada de enfermedad profesional o accidente laboral, las vacaciones no se computarán en tanto en cuanto no cesara aquella situación de Incapacidad Temporal.

Artículo 10. Mejora del empleo.

Con el fin de atajar la precariedad laboral que existe en el sector, las empresas se comprometen:

1. Que antes de cubrir las vacantes existentes a través de nuevas contrataciones (puestos estructurales), la empresa estará obligada a ofertar dichas vacantes al personal fijo a jornada parcial (sea personal indefinido o fijo discontinuo), con el fin de que la persona trabajadora alcance la jornada completa, siempre siguiendo el criterio de antigüedad en la categoría y siempre que se cumpla con el perfil profesional requerido.

2. En los supuestos de que existan necesidades se cubrirá IT, permisos, licencias, excedencias, etc., de forma temporal, se ofertará la realización de horas complementarias a las trabajadoras y trabajadores que sean indefinidos o fijos discontinuos, a jornada parcial, siguiendo el criterio de antigüedad en la categoría y siempre que se cumpla con el perfil profesional requerido.

Si a una trabajadora o trabajador con contrato indefinido o fijo discontinuo se le reduce la jornada laboral, y antes de que se adjudique la vacante por antigüedad, tendrá preferencia a incrementar su jornada hasta alcanzar la jornada laboral que posea antes de la reducción.

11. artikulua. Aparteko ordainsariak.

Urtero, langile guztientzat, jasotzen duten oinarrizko soldataren hogeita hamar eguni dagozkien aparteko bi ordainsari eta jasotzen duten oinarrizko soldataren 15 eguneko beste bi aparteko ordainsari ezartzen dira. Sektore honetako urtarokotasun altua kontuan hartuta, hileru hainbanatuko dira, oro har, enpresaren eta langileen arteko berariazko akordiorik ezean.

12. artikulua. Garraio-plusa.

Benetako lanaldi bakoitzeko 2,45 €-ko garraio-plusa ezartzen da 2024rako, lan-jarduera egiten den udalerritik kanpo bizi diren langileentzat, bai eta, 25.000 biztanletik beherako udalerrietan, udalerriri berean bizi eta zerbitzua ematen duten lekutik 3 km baino gehiagora bizi direnentzat eta, 25.000 biztanletik gorako udalerrietan, garraio publikoan 20 minutu baino gehiagora bizi direnentzat ere.

Alderdi hori behar bezala justifikatu beharko da agiri ofizial baten bidez (errolda-ziurtagiria) edo etxebizitza alokatzeko kontratuaren kopia baten bidez (behar bezala erregistratuta), argiaren/uraren/horniduren fakturen bidez...

Hitzarmenaren gainerako urteetarako (2025etik 2028ra) kopuru horren % 3ko urteko eguneratzea ezartzen da. Plus hau ez zaie ordainduko langileei garraio-baliabide nahikoak eta egokiak ematen dizkieten enpresei.

Soldataz kanpoko osagarria da, eta ezin da inola ere xurgatu, ezta konpentsatu ere.

13. artikulua. Urtarokotasun osagarria.

Arazten den jardueraren ezaugarri bereziak direla eta, sektorearen profesionalizazioa eta langileek sektorearekin duten lotura sustatzeko, «Urtarokotasun-osagarria» izeneko ordainsari-osagarri bat ezarri da. Osagarri hori soldata-taulak eguneratzeko % 1 gehigarria izango da, kategoria guztietarako, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean. Osagarri hori urte bakoitzeko urtarilaren 1etik aplikatuko da, eta hitzarmen honen 18. artikuluan aurreikusitako eguneratzeetatik aparte egongo da.

14. artikulua. Aparteko orduak.

Oro har, hitzarmen honen eraginpeko langileek ez dute aparteko ordurik emango, lanaren antolaketari buruzko inguruabarrek hala eskatzen dutenean izan ezik. Prestazio hori langileak bere borondatez emango du beti.

Jaiegunetan egindako aparteko orduak hitzarmenean ezarritako oinarrizko soldataren gaineko % 75eko errekaruarekin ordainduko dira. Gainerako aparteko orduak % 50eko errekaruarekin ordainduko dira.

Salbuetsita geratzen dira dagokion atsedenearekin konpentsatzen diren orduak.

Banakako orduaren balioa indarreko legezko formularen arabera kalkulatu da.

15. artikulua. Soldatak.

Hitzarmen honetan ezarritako lanbide-kategorietarako soldata-taulak dokumentu honen eta eranskinen amaieran zehazten direnak izango dira, eta 1. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da eraginpeko lantokietan hitzarmen honetan ezarritako baldintzak aplikatzeari dagokionez.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean (2024tik 2028ra), urteko % 2,75eko eguneratze finkoa ezartzen da, urte bakoitzeko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2024-2028 aldian aplikatutako soldata-eguneratze metatuen eta aldi bereko Gipuzkoako KPI metatuaren arteko 2028-12-31ko konparaziozko berrikuspena barne. Taulak 2029-01-31 baino lehen eguneratuko dira.

Artículo 11. Pagas extraordinarias.

Se establecen, con carácter anual y para todas las personas trabajadoras, 2 pagas extras correspondientes a treinta días del salario base que perciban y otras dos pagas extra de 15 días de salario base que perciban. Teniendo en cuenta la alta estacionalidad de este sector, éstas serán prorrateadas mensualmente con carácter general salvo acuerdo expreso entre empresa y personas trabajadoras.

Artículo 12. Plus de transporte.

Se establece un plus de transporte de 2,45 € por jornada efectiva de trabajo para el 2024 para aquellas personas trabajadoras que residen fuera del municipio donde se desarrolla la actividad laboral, así como para aquellas personas que, residiendo en el mismo municipio, residen a más de 3 km del lugar donde presten servicio en el caso de municipios de menos de 25.000 habitantes y de 20 minutos en transporte público para los que residen en municipios de más de 25.000 habitantes.

Este aspecto deberá ser justificado fehacientemente mediante documento oficial (certificado de empadronamiento) o copia de contrato de alquiler de vivienda debidamente registrado, facturas de luz/agua/suministros...

Se establece una actualización anual del 3 % sobre dicha cantidad para los restantes años del convenio (2025 a 2028). Se exceptúa del pago de este plus a aquellas empresas que faciliten a las personas trabajadoras medios de locomoción suficientes y adecuados.

Se entiende que es un complemento extrasalarial y bajo ningún concepto absorbible ni compensable.

Artículo 13. Complemento de estacionalidad.

Dadas las especiales características de la actividad que se regula, con el objetivo de fomentar la profesionalización del sector y la vinculación de las personas trabajadoras al mismo, se establece un complemento retributivo de carácter salarial denominado «Complemento de Estacionalidad» consistente en un 1 % adicional de actualización de tablas salariales para todos las categorías durante la vigencia de este convenio, aplicable desde el 1 de enero de cada año e independiente de las actualizaciones contempladas en el artículo 18 del presente convenio.

Artículo 14. Horas extraordinarias.

Con carácter general, las personas trabajadoras afectas a este convenio no prestarán horas extraordinarias salvo que concurren circunstancias relativas a la organización del trabajo que así lo requieran, siendo dicha prestación siempre voluntaria por parte de la persona trabajadora.

Las horas extraordinarias realizadas en días festivos se abonarán con el 75 % de recargo sobre el salario base establecido en el convenio. El resto de horas extraordinarias se abonarán con un 50 % de recargo.

Quedan exceptuadas aquellas horas que son compensadas con el correspondiente descanso.

El cálculo del valor-hora individual ordinario, se efectuará según la fórmula legal vigente.

Artículo 15. Salarios.

Las tablas salariales para las distintas categorías profesionales establecidas en este convenio serán las que se detallan al final de este documento y sus anexos, siendo de aplicación lo establecido en el art. 1 respecto de los efectos aplicativos de las condiciones establecidas en este convenio a los distintos centros de trabajo afectados.

Durante el plazo de vigencia de este convenio (2024 a 2028) se establece una actualización fija anual del 2,75 % anual, con efectos a 1 de enero de cada año, incluida una revisión comparativa a 31-12-2028 entre las actualizaciones salariales acumuladas aplicadas durante el periodo 2024-2028 y el IPC de Gipuzkoa acumulado del mismo periodo. Dicha actualización de tablas se llevará a cabo antes del 31-01-2029.

Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, Hitzarmen honetako 1. artikulua arabera, eta ultraktibitate-egoeraren kasuan, aldi horretako lehen bi urteetarako (2029 eta 2030) soldata-berrikuspena ezartzen da, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurre-rako ondorioekin, tauletan ezarritako soldataren gaineko % 2an.

Ateratzen den igoera benetako igoera dela ulertzen da, eta ezin da inola ere xurgatu, ezta konpentsatu ere, enpresen eta langileen artean kontrako ituna egin ezean.

Ezartzen diren baldintza guztiak konpentsagarriak dira aurretik indarrean zeudenekin, enpresek alde bakarrez hitzartutako hobekuntzengatik, legeek, jurisprudentziak, administrazioarekiko auziek, edozein motatako itunengatik, banakako kontratuengatik, tokiko usadio eta ohiturengatik edo beste edozein arrazoiengatik.

Hitzarmen honetan ezarritakoak gainditzen dituzten baldintza eta egoera pertsonalak errespetatuko dira, eta baldintza eta egoera horiei eutsi beharko zaie.

Hitzarmen honetan ezarritako ordainsari guztiak gordinak dirrela ulertuko da; beraz, Gizarte Segurantzako kuoten eta mota guztietako zergen kontzeptuan langileek ordaindu behar dituzten zenbatekoak beren ordainsariatetik kenduko zaizkie, eta deuseza izango da kontrako itun oro.

Hitzarmenaren indarraldirako soldata-etaulak erantsi dira.

16. artikulua. Baldintza onuragarriagoak.

Hitzarmen honetan ezarritakoak baino baldintza hobek dituzten langileek banaka dituzten baldintza onuragarriagoak osoz errespetatuko zaizkie, salbu eta enpresek eta langileek kontrarik adosten badute.

17. artikulua. Aldi baterako ezintasuna.

Lan-istripuaren edo lanbide-gaixotasunaren kasuan, langileak osagarri bat jasotzeko eskubidea izango du kotizazio-oinarri osora arte (% 100eko AE).

Gaixotasun arrunten kasuan, kotizazio-oinarri osora arte osatuko da (% 100eko AE), ospitaleratze eta errehabilitazio kasuetan bakarrik.

Nolanahi ere, enpresak osagarria ordaindu beharra, bi kasuetan, langilearekiko lan-harremana amaitzen den egunean amaitzen edo amaitzen da, eta egun horretatik aurrera ez da ordaindu behar.

18. artikulua. Jarduera sindikala.

Legez eraturako zentral sindikal batean afiliatutako enpresa edo lantoki bateko langileek enpresako atal sindikalak eratu ahal izango dituzte, betiere honako bi baldintza hauek betetzen badira:

- Enpresak 10 langile baino gehiago izatea.
- Sindikatuak enpresan edo lantokian gutxienez % 20ko afiliazio-ehunekoa izatea.

Enpresako sekzio sindikalek argitalpenak banandu, beren kotizazioak jaso eta dagozkien gainerako zereginak ere egin ahalko dituzte askatasun osoz. Zeregin horiek lanorduetatik kanpo egin beharko dituzte.

Aldeek konpromisoa hartzen dute enpresako atal sindikalak eratzeko afiliazio-eskakizunaren ehunekoa % 20tik % 30era igozteko 2 urteko epean.

6 eta 30 langile arteko plantilla duten enpresak ordezkatzeko dituen langileen ordezkariak ordaindutako 25 orduko ordu-kreditua izango du hilean jarduera sindikala egiteko.

Conforme a lo establecido en el art. 1 de este convenio y en el caso de situación de ultractividad, se establece una revisión salarial para los dos primeros años de dicho periodo (2029 y 2030), con efectos a 1 de enero de cada año, al 2 % sobre el salario establecido en las tablas.

El incremento resultante se entiende que es una subida real y bajo ningún concepto absorbible ni compensable, salvo pacto entre empresas y personas trabajadoras en sentido contrario.

